

**Ameslari
bat dator
Irandik**

ataria

Politika
*Haritz Azurmendi filosofoa,
abertzaletasuna ardatz
hartuta, tesia burutzen*

Kirola
*Aida Nuño eta Ismael Esteban
izan dira azkarrenak,
Asteasuko ziklo-kros proban*

2016-12-09
594. zenbakia
107.6 fm
www.ataria.eus

30% DESKONTUA EGUZKITAKO BETAURREKOETAN
-EKO Ray-Ban OAKLEY armélio eta askoz gehiago...
www.multiopticagipuzkoa.com

ARRASATE • BERGARA • BEASAIN • DONOSTIA • EIBAR • ERRENTERIA • IRUN • LASARTE • ORDIZIA
Kontsulta itzazu zure zentroan kanpainaren ezaugarriak. Ezingo da beste eskaintza batuetan erabili.

San Frantzisko, 23 • Tel. 943 69 84 70 • TOLOSA

MULTIÓPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan

ROUTE 33 GOURMET
www.hogeitahamahiru.com
Bazurka industrialdea, 1. zbkia
90060 Alegia • Tel. 943 698 604

GOURMET OKINDEGIA GOXOTEGIA KAFETEGIA MUSEOA

Irribarre 943 69 86 31 **Presso** 943 69 8617 **Stylo berri** 943 69 86 18

Bazurka industrialdea • ALEGIA

Tolosako Babarruna
GOZA ITZAZU

www.tolosakbabarruna.eus
Tel.: 943 65 02 53

Iraultzarena

Ama hitz eta pitz ari da lagun batekin Fidel Castro hil berriaz. Alaba nerabeak entzun eta, bat-batean, bota du: zer da «iraultz», ama?... Ea nola demontre esplikatzen dion amak, XXI. mendean jaio den gizakiari, iraultza zer den. Zerbait erantzutera behartuta, ahoa ireki du. Ordea, bururatu zaion guztia da egun bat lehenago bizitakoa, Emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako egunaren karietara, hiriburuan egin zen manifestazioan parte hartu zuenanean. Eta ahotik ez zaio fitsik atera. Saltoki eta komertzio-guneen jabeek *black friday* ostirala izendatu zuten egun hartan bertan, bazegoen manifestazio jendettsuan emakume mordoa; andre kontzientziatuak, helduak eta gazteak, eta baita gizonezkoak ere. Hala ere, dendak, bestea beste, neska gaztexoez lepo zeudela ikusi ahal izan zuen amak, *black friday* delakoaren beherapenak aprobetxatzen, arropa merkea erosi eta erosi. Hain zuzen ere, milaka emakumek lan ordu amaigabeetan soldata ezin kaskarragoen truke eginda-



YURRE UGARTE
GIDOILARIA ETA IDAZLEA

ko arropa merke horiexek, amaigabeko lan orduetan soldata ezin merkeagoen truke, milaka (gizon eta emakume) dendarik saltzen dituzten arropa horiexek. Soldata kaskar zein duineko jendeak etengabe erosten dituen arropak. Enpresa multinazional erraldoiek ezarritako baldintzetan sortu, saldu, publizitatu eta erositako arropak (edo dena delakoak). Arrapaladan datozkio pentsamendua: agian alabari esan beharko lioke iraultza dela *black friday* egunean dendak hutsik eta manifestazioa gainezka egotea. «Bai zera, iraultza da jendeak Inditex eta antzeko mega-enpresa multinazionaletan lan egiteari uztea», erantzuten du amaren baitako ahots batek. Laster batean, ahots sakanago batek gehitzen du: «Iraultz da denda horietan lan egitera behartzen gaituzten bizi-egoerak desagertzea». Azkenean, burutaziook hitz bihurtzen ausartu eta argi eta garbi ahoskatu du amak: «Iraultz izango litzateke, esate baterako, Amancio Ortega Inditexeko jabeak (eta bere kastakoek) daukan diru guztia langileen artean banatzea eta, gainera, hortik aurrera langileak esplotatzeari uztea. Edota emakumeen kontrako indarkeria bat-batean desagertuko balitz, horixe ere nolabaiteko iraultza litzateke». Amak hitz egiten bukatu duenean Fidel Castroren ahots erraustua entzun da: «Hori guztia borroka egin gabe lortzen bada, horixe bai iraultza».

Emakumeen kontrako indarkeria bat-batean desagertuko balitz, horixe ere nolabaiteko iraultza litzateke

ARGITARATZAILEA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM **LEGE GORDAILUA:** SS-1323-2013 **KOORDINATZAILEA:** Naiara Roldan de Aranguez **KUDEATZAILEA:** Jexux Murua **TELEFONOA:** 943 655695 **WEBGUNEA:** www.ataria.eus **POSTA ELEKTRONIKOA:** ataria@ataria.eus **IRRATIA:** 943 6980 38 · 687 4100 33 · 107.6 FM **PUBLIZITATEA:** 661678818 · publi@ataria.eus

ATARIAK ez du bere gain hartzen aldiak larriko adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 77 €

TOLOSALDEKO ATARIA DIRUZ LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK:

Udalak: Abaltisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Albizturi, Altzo, Amezketa, Añoba, Asteasu, Balmaseda, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gatzelua, Hernialde, Ibarra, Iraztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEA, SM-KO KIDEAK:



Azaleko irudia:
Ane Urkola



Aioraren izeba da Amalur Mendizabalek, eta txundituta daude jendearen elkartasuna ikusita. ITZEA URKIZU

04

ELKARTASUNA IZAN DAITEKE PLASTIKOZKOA

Garun paralisiari aurre egin ahal izateko olatua Lizarratik (Nafarroa) Euskal Herrira zabaldu dute Aioraren guraso eta senideek, eta baldintza bakarra du laguntzaren uholdeak: plastikozko tapoiak biltzea.

Itzea Urkizu Arsuaga

Supermerkatu eta dendetan ez dira gaurkoak, tapoiak biltzeko kanpainak eta kuxak. Gizarteari laguntha eskatzeko zubi izan ohi dira, egoera gordinen batean bizitzea egokitu zaion norbaiti bultzadatxoa emateko balio baitute, plastikozko objektu txikiek. Baino, noiz hartzen dute tapoiek laguntza forma? Bada, berrerabilten dituzteean.

Tapoi tona bakoitzaren truke 200 euro inguruko ordainsaria eskaintzen dute zenbait enpresak, eta tapoiak plastiko gogorrezkoak izatea da baldintza bakarra.

Eta elkartasun plastikozkoak izatea, noski. Baino osagai horren faltarik ez da izaten, herritarrek kaltetua ezagutu gabe eskaintzen baitute, ia beti, beren babesa. Azken hilabeteotan Tolosadean bildutako tapoi kiloak dira horren erakusgarri: Lizarrako (Nafarroa) Aiorari laguntzeko uholdea ere iritsi baita eskualdera.

Mundura sortu aurretik sortu zitzakion, Aiorari, osasun arazoak. Kardiopatia batekin jaio zen Gurutzetako ospitalean (Barakaldo, Bizkaia), eta erditzearen ondorengo diagnosi ilunenari aurre egin zion haurrak.

Bihotzko arazoak, ordea, ebakuntza bat egiteko beharra sortu zuen, jaio eta hilabete gutxira Aiora anbulan-

tzian eraman behar izan baitzuten, oso larri, Madrilgo (Espainia) Gregorio Marañon ospitalera.

«Bihotzko transplante bat egitea zen medikuen asmoa, baina, azkenean, ez zen beharrezkoa izan. Hala ere, denbora luzez egon behar izan zuen han ospitaleratuta», azaldu du Amalur Mendizabalek. Aioraren izeba da zizurkildarra, eta senarraren eta bien artean, Nafarroako elkartasun olatuen errepika eskualderaino ekarri nahi izan zute; eta baita lortu ere.

Izan ere, Aioraren bizitzako lehen urteetako oztopoak ez ziren ebakuntza hartan amaitu: «Madrildik etxera itzuli zen, eta tarteka berrikustea egitera joan behar izaten zuen medikuaren gana. Errebisio horietako batean, beste ebakuntza bat egin behar zitzaiola azaldu zuten medikuek eta, horrela, iazko Eguberrieta, Madrilera joan ziren, Aiorak bi urte eta erdi zituela», dio Mendizabalek.

Aurreikusitako ebakuntza izaki, hiru asteren buruan Lizarrara itzultze-ko asmoz ekin zioten bidaia, baina, aurretik pasatutako estuasun guztien zerrendan, atakarik handiena gehitu zen: «Medikuak kateterismo bat egitea erabaki zuen, eta horretarako hodi txiki bat sartu behar izan zioten. Proteziarekin lanean hasi zirenean, ordea,

hoditxoan haurraren barruan puskatu zitzaien, eta Aiorari bihotza gelditu zi- tzaion. Horren eraginez, garun parali- sia du orain ilobak», azaldu du Amalur Mendizabalek.

Ate guztiak jo, halabeharrez

Madrilen hiru aste pasatzetik, hilabe- teak eta hilabeteak pasatzera igarо zи ren Aiora eta haren familia, haur kar- diopatiak tratatzeko ospitalerik ego- kienetako batean egon baitzen haurra.

Bitarte horretan, Ronald McDonald fundazioak Madrilen duen etxearen hartu zuen ostatu familiak: «Niño de Jesus ospitalearen atzean pabiloi han- di bat dute, ospitalizatuta dauden haurren senideentzat. Hotel baten antza du, eta sukalde erraldoi bat dute, norbere otorduak-eta prestatzeko», dio Mendizabalek. Ronald McDonald fundazioak 1997an ekin zion jardun horri eta, besteak beste, McDonald's establezimenduetan jarritako eltxe- txuen bitartez finantziatzen dituzte zentroak.

Bada, zentroa etxe bilakatu zitzaien Aioraren senideei, eta haurren osa- suna egonkortu zenean, gurasoak eta ahizpa txikia Pisarantz (Italia) abiatu ziren, masaje eta postura bidezko erre- abilitazio terapia batean trebatzera. «Teknika hori ikasi, Aiorari alta eman eta Lizarrara itzuli ziren, baina, orain, errealitate gordin batekin egin dute topo: horrelako osasun arazo batia au- rre egitea gastu izugarria da».

Aiora jaio zenez gerotzik honako bi- dea ate-joka ibiltze bat izan da guraso zein senideentzat, baina, egoeraren gordinetik izanda ere, pozarren daude elkartasunaren atea zabal-zabalik ire- ki zaielako.

Amalur Mendizabalek azaldu due- nez, «Lizzarrako erantzuna izugarria izaten ari da, noski, baina baite Tolosaldeko ere». Tolosan, adibidez, hiru ikastetxeetan, Usabal Kirolegian, Kopi Bat dendaran, La taberna de Khris- sen, Photokafen eta The Nesten bil- tzen ari dira tapoiak, eta Villabonan, Adunan nahiz Anoetan ere atxiki dira laguntzaren olatura.

Herritarren iniziatiabak irribarre asko marraz ditzakeela ikusi dute, eta

Garun paralisia duen haur lizarratarra da Aiora, eta osaba-izebak eta lehengusuak ditu Tolosaldean

Plastikozko tapoiak biltzen ari dira, terapia eta erreabilitazio egokietarako baliabide ekonomikoak eskuratzeko

Mendizabalek jendearen borondatea nabarmendu nahi izan du: «Anoetan Zen ikastaroa izaten da eta, prezio bat jarri beharrean, ohitura dute boronda- tea emateko. Bada, nire izebak ikasta- roan Aioraren kasua aipatu, eta 900 euro bildu zituzten! Sekulakoa da el- kartasuna».

Lorpen txikien indarra

Orain arteko bildutako tapoi eta elkar- tasunak, Aiorari Iruñeko terapia batean hasi ahal izateko txartela eman dio, igerilekuaren. «Bere burua zutik eustea lortu du, eta pauso izugarria da hori», dio Mendizabalek.

Jada ikusten duela ere barakite, eta etxetik eskolarako pausoa ere eman berri du, eta joan den azaroaren 7an Li- zarrako ikastolan hasi baitzen: «Gura-

soek bilera eskatu zuten Ainhoa Azna- rez Nafarroako parlamentuko lehen- dakariarekin, izan ere, Nafarroako go- bernuak kupo moduko bat zuen ikas- tetxeetan, behar bereziak dituzten haurren zerbitzuak diruz laguntzeko, eta Lizarrako ikastola zen inguruan es- kaintza hori zuen bakarra. Bada, ku- poa deuseztatu eta ikastolan hastea lortu du».

Berri on batek bestea ekarri, eta azaroaren 30ean bere gorputzari egokitutako gurpildun aulkia eskuratu zuen Aiorak; guzti-guztia elkartasun itu- rriatik finantziatu dute.

Bitartean, jendea tapoiak bildu eta bildu ari da, tapoiak eman eta eman, eta Aioraren familiaren begirada Ku- ban dago orain: «Sakanako mutiko bat bertan izan zen, trafiko istripu larri bat izan baitzuen. Teknika berezi horren bitartez, oinez hastea lortu du. Aiorak hiru hilabeteko tratamendu hori jaso- tzea azterten ari dira orain».

05

BILKETA

TOLOSA

Usabal Kirolegian. Laskorain ikastolan, Hirukide Jesuitinak ikastetxeen eta Samaniego ikastetxeen. Kopi Bat dendaran. La taberna de Khris tabernan. The Nest tabernan. Photokafe tabernan.

ANOETA

Udaletxeen.

ADUNA

Udaletxeen.

*** Zehaztutako guneez gain, Tolosaldean beste hainbat bilketagune ere badira, plastikozko tapoiak jasotzeko.



ataria
Irratia ataria Internet ataria Prentsa

Zure iragarkia argitaratzeko:
661 67 88 18
publi@ataria.eus



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Ezkerrean, Aida Nuño txapelduna. Eskuinean, Felipe Orts, Ismael Esteban eta Stan Godrie. ANE URKOLA

Esteban eta Nuño garaile

06

Ismael Esteban eta Aida Nuño izan ziren garaile Asteasun; hurrengo proba Igorren jokatuko dute, igandean

Ane Urkola

Aitzondo Txirrindulari Elkarteak antolatutako ziklo-kros proba izan zen Asteasuko Elizmendi auzoko zelaian. Zua eta Igorreko probekin batera, Asteasuko Nazioarteko probak osatzen du Challenge-Euskadi zirkuitua. Puntako txirrindulariak ikusteko

aukera izan zen atzo Asteasun: Lars Boom munduko txapeldun izanda-koa, eta Italia, Belgika, Herbeheretatik eta Espainiako estatutik etorritako txirrindulariek ere parte hartu zuten proban.

Maila ezberdinak, lehian

Masterrentzako karrerarekin hasi zen, eta sei buelta egin behar zituzten. 30-40 urte bitartekoetan, Adolfo Martínez izan zen garaile; 40-50 urte artean Cástor Gonzálezek irabazi zuen, eta 50 urtetik gorakoetan, Andoni Gartzia-

eskuratu zuen lehen postua. 10:00etan, kadeteen txanda izan zen. Bost bira egin, eta lehenengo postua Haritz Felix Azurmendik lortu zuen 30 minutu eta 51 segundorekin. Bigarren, Mikel Orbea geratu zen 22 segundora, eta Iñaki Guarestik osatu zuen podiuma, 42 segundora. Juniorretan, berriz, Xabier Murias izan zen garailea, Jon Polledoren eta Aketza Aranaren aurretitik. Lehia estua izan zen, bi segundoko aldea izan baitzuten lehenengoaren eta bigarrenaren artean.

Emakumezkoen txanda izan eguerdian. Aida Nuño irabazi zuen proba eta Lucia Gonzalez izan zen bigarren. Hain zuzen, Gonzalez izan zen 23 urtez azpikoetan lehena. Hirugarren postua, berriz, Eider Merinok lortu zuen. Gizonetakoan, elite eta profesional mailan, Ismael Estebanek irabazi zuen. Bigarren postua lortu zuen Stan Godriek, eta hirugarren geratu zen Aitor Hernandez. Oso lehia estua izan zen: lehenengoaren eta bigarrenaren artean 60 ehunenekoaldea zegoen; bigarrenaren eta hirugarren artean, berriz, bederatziz ehuñeneko. 23 urtez azpikoetan, Felipe Orts valentziarra izan zen lehena. Jokin Alberdi zizurkildarrak 23. postua lortu zuen, ia bost minutura. Gustura hasi



Jokin Alberdi zizurkildarrak 23.postuan sailkatu zen; katea aterata ibili zen. ANE URKOLA



SAILKAPENA

MASTERRAK

30 urtetik gora. Adolfo Martinez

40 urtetik gora. Cástor Gonzalez

50 urtetik gora. Andoni Gartzia

KADETEAK

Lehenengo postua. Haritz Felix Azurmendi.

Bigarren postua. Mikel Orbea.

Hirugarren postua. Iñaki Guaresti

JUNIORRAK

Lehenengo postua. Xabier Murias

Bigarren postua. Jon Polledo

Hirugarren postua. Aketza Arana

EMAKUMEZKOAK

Lehenengo postua. Aide Nuño

Bigarren postua. Lucia Gonzalez
(23 urte azpiko eta lehen)

Hirugarren postua. Eider Merino

GIZONEZKO ELITEAK

Lehenengo postua. Ismael Estebano

Bigarren postua. Stan Godrie

Hirugarren postua. Aitor Hernandez

23 urte azpikoak. Felipe Orts



Elolar en oriomenezkoaren finaletan parte hartu zuten pilotariak, atzo, Beotibarren. A. IMAZ

Alberroek eta Ihitsaguek irabazi dute Elola saria

Xistera zirkuituaren barruan jokatu da III. Eloaren Orio menezko zesta punta txapelketa, lehen aldiz

Asier Imaz


Jauzia nabaritu da. Xistera zirkuitua aurten jarri dute martxan Euskadiko Pilota Federaziotik, zesta punta elkarteekin harremeanan. Euskal Herriko txapelketa desberdinak Xisterran sartu dituzte, horien artean, atzo amaitu zen Tolosako Eloaren Orio menezkoa. Pilota jaialdi handi baten testuinguruan jokatu ziren finalak atzokoan.

Nagusien mailako finalean, Alberro eta Ihitsague nagusitu ziren bi kiniela jarraian irabazita. Baino lana gogotik

egin behar izan zuten, Narbarket eta Urangak zail jarri zielako. Azkenean, 13-12 eta 13-11koarekin erabaki zen III. Eloaren Orio menezkoa.

Gazteen mailan Labianok eta Aguasek jantzi zuten txapela. Goitia eta Mandiola bizkaitarrei irabazi zieten finala nafarrek, nahiz eta galtzen hasi 13-6. Bigarren kiniela eurek lortu zuten ordea, 11-13. Joko erabakigarria bostera jokatu zen, eta launa joan ondoren, azken tantoa Labianok eta Aguasek lortu zuten.

Pilota jaialdia Maite Ortiz de Mendi bilek eta Nahia Calvok ireki zuten atzokoan. Kiniela bakarrera jokatu zuten Naroa Merino eta Eneritz Lizardiren aurka. Azken hauetan ziren partidako garaileak, 15-13ko emaitzarekin.



zen, baina bigarren itzulian onenekin zihoala katea atera zitzaien eta proba amaieran haserre zen zizurkildarra.

Igandean jokatuko da Igorreko proba eta bertan erabakiko dira Challenge-Euskadi zirkuituaren irabazleak.

Herri Kirolatik...

Aspaldi jokatu gabeko apustua, igandean

Brometatik kampoko lanak egin beharko dituzte igandean, hilaren 11n, Azpeitiko Izarraitz pilotalekuaren. 12:00etatik aurrera, 200 kiloko errektangularrekin aurrez aurre



JOXE ANJEL SARASOLA

bi harri-jasotzaile ariko dira, sei minutuko hiru txandatan. Txanda batetik bestera 15 minutuko atsedean naldia izango du bakoitzak. Alde batetik, Xabier Aranburu *Guzta*. Itsasondokoa berrez, baina azken urteetan Urrestilla aldean bizi dena. Bestetik, bertakoa, Hernialdeko Iban Ugarte-



Iban Ugartemendia semearekin ezkerrean, Sarasola eta Iruretagoienarekin. A. IMAZ

mendia. Honi laguntzen Imanol Iruretagoiena izetatarra eta Landarbide ibili dira. Ikaragarrizko lana dute aurrean, aspaldi egin ez den horietakoa. Horregatik, alde bakoitzak jokoan 5.000 euro jarriko ditu, eta sarrera 30 eurokoa izango da.

Markei begira jarriz gero, Arrutiren 18 jasoalditik Landarbideren 32ra joan gaitezke. Gorabehera handiak; zerbaiengatik ez dira egiten horrelako apustuak.

Ekainean itxi zuten apustua bi harri-jasotzailek, eta hilabete horietan egindako lanarekin gustura zegoen

Ugartemendia: «Ondo prestatu gara, eta lan polita egiten saiatuko gara; ea etxekoa plazan egiten dugun. Gu gurea egitera joango gara». Imanol Iruretagoiena ere iritzi berekoa zen, eta etxeko zenbakietatik ateratzea arriskutsuegia dela esan zuen izetatarra. Sei hilabete hauetan teknika landu dute alde batetik, Ugartemendiaren arabera, eta horrez gain, prestakuntza: «Edozein txapelketetan egiten den lana baino gogorragoa da hau, eta horretan saiatu gara. Gogorra izan da, baina ondo iritsi gara. Orain egunean eta orduan erakutsi behar da».



AGIRRE BIGARREN ESPAINIAKOAN, JAUREGI, SAEZ ETA GONZALEZ HIRUGARREN

Aurreko asteburuan Espainiako Txakur-Kros Txapelketak jokatu ziren Olvegan, Sorian. Eskualdeko ordezkarriak dituen Hike Mushing taldeak emaitza oso onak lortu zituen bertan. Mattin Jauregi ikaztegiarrak hirugarren postua lortu zuen txakur-krosen, juniorretan. Carlos Saezek postu bera lortu zuen bizikletaz, beteranoen mailan, baita Jon Gonzalezek seniorretan ere, eta honek ere bizikleta modilitatean. Azkenik, Eneko Agirre zizurkildarra bigarren gelditu zen patinetean. ATARIA

Kirol Agenda

@Tolosaldeakiroi 



Kordoban erori ondoren, berriro etxearen jokatuko du Tolosa Eskubaloia. ATARIA

OSTIRALA ABENDUAK 9

ALEGIA

ELORRI PILOTALEKUA

18:45. Esku pilota.

Intxurrekoen bi partida.

Infantilak eta jubenilak.

AMASA-VILLABONA

BEARZANA PILOTALEKUA

19:00. Esku pilota. V. Antton Pebeten oriomenezkoa: Lehen partida, Anso-Aizpuru vs. Etxeberria-Ibarloza. Bigarren partida, Prado-Etchegoin vs. Azpíri-Murgiondo.

AMEZKETA

LARRUNARRI PILOTALEKUA

19:00. Esku pilota.

Zazpi Iturrikoen bi partida.

Lehena Tolosakoena aurkakoa. Alebinak.

TOLOSA

BEOTIBAR PILOTALEKUA

19:30. Esku pilota.

Tolosakoena hiru partida. Infantilen maila.

LARUNBATA ABENDUAK 10

ALEGIA

ELORRI FUTBOL ZELAIA

10:00. Futbola.

Intxurre vs. Ordizia.

Lehen mailako kadeteak.

12:00. Futbola.

Intxurre vs. Idiazabal. Infantilak.

AMASA-VILLABONA

BEARZANA PILOTALEKUA

11:00. Esku pilota. V. Antton Pebeten oriomenezkoa: Lehen partida, Anso-Aizpuru vs. Etxeberria-Ibarloza. Bigarren partida, Prado-Etchegoin vs. Azpíri-Murgiondo.

IRURA

AMETSA TRINKETA

13:00. Esku pilota. Gipuzkoako Trinketa Txapelketako zortzi partida. Kadete maila.

TOLOSA

USABAL KIROLDEGIA

09:00. Futbola. Tolosa CF vs. Hernani. Infantilak.

10:30. Futbola. Tolosa CF vs. Beti Gazte. Ohorezko kadeteak.

12:15. Futbola. Tolosa CF vs. Urola. Kadeteak.

15:30. Areto futbola. Laskorain Ikastola vs. Laburu Ibarra. Jubenilak.

15:30. Futbola. Tolosa CF vs. Zarautz. Ohorezko jubenilak.

16:30. Futbola. Tolosa CF vs. Antiguoko. Euskal Liga, jubenilak.

17:30. Futbola. Tolosa CF vs. Segura. Jubenilak.

18:00. Mahai tenisa. Oargi vs. Gure talde. Bigarren maila.

IGANDEA ABENDUAK 11

IRURA

AMETSA TRINKETA

09:30. Eskupilota. Gipuzkoako Trinketa Txapelketako hiru partida. Nagusien maila.

TALDE NAGUSIAK

LAUBURU IBARRA

Gracuris

Areto futbola. Abenduak 10, larunbata, 16:30ean Ibarrako Belabietan, Bigarren B Mailako partida.

TOLOSA CF ESKUBALOIA

Ciudad Real

Eskubaloia. Abenduaren 10a, larunbata, 20:30ean, Tolosako Usabalen. Zilarrezko mailako partida.

Vitoria

TOLOSA CF

Futbola. Abenduaren 10ean, larunbata, 16:30ean, Nandares de la Ocan, Hirugarren Mailako partida.

Berrio-Otxoa

TOLOSA CF

Futbola. Abenduak 11, igandea, 17:00etan, Bilboko Ibarsusi zelaian. Euskal Ligako partida.

TAKE REDLINE MEKANIKA

Universidad de Burgos

Saskibaloia. Abenduak 10, larunbata, 18:30ean, Usabalen. EBA Liga.

TOLOSA

USABAL KIROLDEGIA

09:30. Futbola. Tolosa A vs. Tolosa B. Alebinak.

12:00. Eskubaloia. Tolosa CF vs. Arrasate. Bigarren nazionala.

12:15. Futbola. Tolosa CF vs. Anaitasuna. Infantilak.

12:15. Futbola. Tolosa B vs. Oiartzun. Infantilak.

**BILLABONA FUTBOL KIROL ELKARTEA**
ARRATZAINGO FUTBOL ZELAIA

Larunbata 10 • 10:00 Kadeteen 1. maila	BILLABONA FKE - HERNANI CD 'A'
Larunbata 10 • 12:00 Infantil Txiki maila	BILLABONA FKE - AMAIKAK BAT KE
Igande 11 • 10:30etik aurrera ERRENDIMENDUKO ALEBINEN JARDUNALDIA	Igande 11 • 16:30 Jubenilen Ohorezko maila
BILLABONA FKE - ZESTOA KB	BILLABONA FKE - ZESTOA KB

Aulkitik

Geroaren hazi heziak

gandean Iruñea ondoko Sarriaguren herrian izan genuen partida Valle de Egües taldearen aurka. Aste bat lehenago etxean garaipena lortu ostean taldea konfiantza gehiagorekin zegoen, liga honetanlehiatu eta irabazteko gai ginela erakutsi baikenuen, taldeak irabazteko gaitasuna zuela sinetsi zuen. Horrela atera ginen kantxara, berdinenean lehiatzeko prest eta gauzak ondo egiten jarraitzeko asmoz.

Berdintasuna izan zen nagusi ia norgehiagoka osoan: 18-17; 29-28; 42-43; eta 64-60 amaieran. Denboraldian bigarren goz lehiatu egin genuen, beldurrik gabe jokatu genuen eta kantxan nahiz aulkian geunden taldekide guztiek garai-

penean sinetsi genuen azken segundora arte, gure artean etengabe aniamatuz eta denon artean talde moduan borrokatuz. Hori da bidea; gogortasunez eta elkarrekin jokatzen jarraitzen badugu gure taldearen indarra biderkatu egiten da, denok norabide berdinean lan egiten badugu garaipenak eskuratzeko aukera gehiago etorriko zaizkigu.

Igandean garaipena eskuratu ez izana eta Ibairen lesioa izan ziren beharbada berri txar barrak; Iruñeara gerturatzeko esfortzua egin zuten zaleak, parkinean go-

zatu genuen bazkari-merienda ederra eta partida galdu arren bide onetik joatearen sentsazioa dira benetan baloratu eta gogoratu behar ditugunak. Gogoratu denboraldi-aurrean talde berdinaren aurka jokatutako norgehiagoka nola joan zen; argi dago taldea haztean ari dela, eta horretan datza, denboraldi amaieran talde moduan hazi eta heztea lortzea ez da gauza kaxkarra izango.

Geroaren hazi heziak.
Aupa TAKE!



ION IZAGIRRE
TAKE REDLINE MEKANIKA

Aulkitik

Puntu bat, ez dago gaizki

gandea 4, 12:45ean geratu ginen Usabalen, beraz, denok goiz baskaldu eta 13:00etan Gasteiz aldera abiatu ginen. Iritsi orduko hotz handia ari zuela nabaritu genuen beraz aldageletara joan, aldatu, Imanolen *txarla* entzun eta berotzera atera ginen partidari aurre egiteko.

15:30ak puntuaren partida hasi zen.

Partidaren jabe gu ginen, gure jokoa eginez, baloia mugitzu eta aukera garbiak edukiz, baina zoritzarrez, kontra batean zentro batetik, Ariznabarren gola iritsi zen. Nahiz eta, golak min egin, guk berdin jarraitu genuen, baloia alde batetik bestera mugitzu, eta lehen zatia bukatu baino lehen, Oihanaren pase baten bidez, Cynthiaren gola iritsi zen,

eta hortik gutxira, lehenengo zatia bukatu zen.

Bigarren zatia, parekatuago egon arren, baloiaren jabe, guk izaten jarraitzen genuen. Nahiz eta, beraiek arrisku gehiegi ez sortu, jokaldi batean, area kanpotik, gola sartu zuten. Gol hori jaso ondoren, partida berriz aldaera gora jarri zen guretzat, baina hala ere, ez genuen amore eman, eta borrokatzentzat jarraitu genuen hiru puntuak Tolosara eramateko asmoarekin. Partida dominatzen egon arren, ez zen gola iristen, baina halako batean, partida bukatzeko gutxi falta zenean, alboko sake ba-

team, baloia Ainhoa Beldarraineri iritsi zitzzion, eta area kanpotik, ezker-kada zoragarri baten bidez, baloia porterria barrura bidali zuen, eta hortik pare bat minutuetara, partida bukatutatzat eman zuen epaileak.

Nahiz eta jokoa hobea egin, ez genuen irabaztea lortu. Hala ere, etxetik kanpo puntu bat lortzea, ez dago gaizki. Orain, etxearen dugun, hurrengo partidan pentsatzea tokatzen zai-

gu, ea oraingoan, hiru puntuak etxearen geratzen diren. Gogor neskak!



JUNE OSINAGA
TOLOSA CF
EUSKAL LIGA

Argi indar mozketak, Alkiza, Anoeta eta Asteasun

J. Miranda Alkiza, Anoeta, Asteasu

Hobekuntza lanak direla eta, argi indarra etengo dute abenduaren 13an, asteartean, 09:00etatik 13:30ra. Lanak uste baino lehenago amaituz gero, argi indarra abisatu gabe itzuliko da. Kaltetutako etxeen zerrenda eman du Iberdrolak.

ALKIZA

Aldapa bailara: 1, 2, 2BIS, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 9BIS, 10 eta 24.

Alikzako plaza: 1, 2, 2BIS, 3, 4, 5, 6, 6BIS, 7, 7BIS, 8, 9, 9BIS, 10, 10BIS, 11, 12, 12PR, 12BIS, 13, 14, 15, 16, 20, 25, 25BIS eta 27.

Alikzako Santiacoko hilerri bidea: 1, 2, 2BIS, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 9BIS, 10 eta 24.

Arana bailara: 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 11, 11B, 12, 13, 14, 15, 16, 17, 18, 20, 21, 22, 23, 24, 24BIS eta 29.

Azaldegi bailara: 6 eta 10.

Etxaburua bailara: 1 eta 2.

Hernio bailara: 1, 3, 4, 5, 6, 6-1, 6-2, 6PR, 7, 8, 9, 12, 13, 15.

Peru bidea: 2, 3, 4, 5 eta 6. **Perualdea:** 1.

Sakamidra bailara: 1, 1B, 2, 3, 4BIS, 4, 5BIS, 5 eta 6.

ANOETA

Goi bailara: 1, 2, 2BIS, 3, 3BIS, 4, 5, 7, 7BIS, 8, 9 eta 10.

ASTEASU

Beballara: 16, 18, 19 eta 19B.

Aitzondoko zerbitzuen mankomunitateak irteerak antolatu ditu eguberritarako

Izen emateko epea abenduaren 16an bukatzen da, Aitzondoko bulegoetan, 943 69 39 30 telefonoan edo 'itsaso@aitzondo.eus' helbidean.

J. Miranda Aduna, Alkiza, Asteasu, Larraul

3 eta 5 urte bitartekoentzat, egun erdi-ko plana antolatu dute. Urtarrilaren 3an, Donostiaro pin parkera joango dira. 6 euroko salneurria du irteerak.

6 eta 12 urte bitartekoentzat egun osoko plana antolatu dute urtarrilaren 3an. Goizez Donostiaro pin parkera irteera antolatu eta arratsaldez Txuri Urdinera joango dira. Janaria eta merienda etxetik eraman behar da. Irteeraren prezioa 18 eurokoa da.

12 eta 17 urte bitartekoentzat, Irisarri abentura parkera bi eguneko irteera antolatu dute. Abenduaren 29an eta 30ean egingo dute. 52 euroko prezioa izango du irteerak eta horren barruan sartzen dira garraioa, egonaldia, lehen eguneko afaria eta bigarren eguneko gosaria. Lehen egunerako hamaiketakoa eta bazkaria eraman beharko dute gazttxoek.

Irisarrira joateko begirale lanetarako boluntarioak behar ditu Aitzondoko zerbitzuen mankomunitateak eta Donostiaro joateko ere, gurasoen laguntza behar da. Herri bakoitzeko bina gurasok parte hartu beharko luke. Aitzondoko bulegoetan izango da informazio gehiago.

'Garden' diskoa aurkeztuko du Alos Quartetek, igandean

Gurea antzokian, 19:30ean hasiko da emanaldia eta gonbidatu bereziak izango direla iragarri dute taldekideek.

J. Miranda Amasa-Villabona

Xabier Zeberio tolosarrak (nyckelharpa, biolina), Francisco Herreirok (biolina), Lorena Nuñezek (biola) eta Pello Ramirezek (celloa) osatzen dute Alos Quartet. *10 tanta* eta *Alos Quartet* diskoka kaleratu ondoren, *Garden* izenekoa aurkeztuko du taldeak igandean.

13 pieza ditu grabazio berriak eta azken urteetan taldeak bidelagun izan dituen hainbat artista eta lagunen kolaborazioekin osatu dute. Besteak beste, Eñaut Elorrieta eta Silvia Iriondoen ahotsak, Oreka TXen txalaparta, Iosu Salbideren alboka eta Iñigo Egainen perkusioak entzun daitezke lan berrian.

Garden izena jarri diote discoari, euskarazko hitzaren argitasuna eta ingelesezko lorategiaren adierarekin jolastuz. «Soinu dotorea, intimotasun eta musika iturri ezberdinatik edaten duen estilo originala» eskainiko ditu Alos Quartet taldeak, igandean, 19:30etik aurrera, Villabonako Gurea aretoan. Taldekideek adierazi dute nez, gonbidatu bereziak ere izango dituzte alboan.



Etxeberria eta Ibarlozaren aurkako partida jokatuko dute eta Prado eta Etchegoinek berriz, indarrak neurtuko dituzte Azpiri eta Murgiondoren aurka.

Sarrera doakoa izango da eta jaialdi bakoitzean saski eder batean zozketa-rako txartelak salduko dituzte.

Asteburuan abiatuko da V. Antton Pebet memoriala

Behar Zanan aritzen zen Angeluko pilotari gaztea gogoratz egiten dute urtero txapelketa, eta gaur hasi eta urtarrilaren 7ra arte luzatuko dira partidak Villabonako frontoian.

J. Miranda Amasa-Villabona

Gaur arratsaldean eta larunbat goizzean jokatuko dira lehen partidak. Gaur, 19:00etatik aurrera, Riol eta Aranguren, Salaberria eta Ruizent aur-

ka ariko dira lehen partidan eta bigarrenean, Espinal eta Gorrotxategi, Urretabizkaia eta Santzezen arteko jokatuko da.

Larunbatean, abenduak 10, 11:00etan hasita, Anso eta Aizpuruk,

Egin zaitez atarikide

abenduaren 16a baino lehen,
eta jaso Marques de Bergara (urteko ardoa) kaxa bat



atarikide@ataria.eus
943 65 56 95

elosegi
ARDOTEGIAK

Polig., 2011- Harizti13
20212 OLABERRIA
Tel.: 943 88 09 79



www.bodegaselosegi.com
bodegaselosegi@bodegaselosegi.com

- Zure herriko eta eskualdeko informazioa jasoko duzu asteartetik ostiralera, euskaran.
- Gipuzkoako Hitza ostiralerlo.
- Atarikide izatearen onurez gozatzeko aukera izango duzu:
 - Deskontuak: %50 eskeletan eta %25 iragarki labur eta zorion agurretan.
 - Publizitate eskaintza bereziak eta zozketetan parte hartzeko aukera.

Eta **ataria irratia** (107.6 fm) eta www.ataria.eus edukiz betetzen eta indartzen lagunduko diguzu.

Eta gainera...
harpidedun guztien artean
Oiartzungo
eremu termoludikorako
2 sarrera
ZOZKATUKO DITU GU



www.elorsoro.com



ataria
prentsa

ataria
irratia

ataria
internet



Otarraintxoak onddoekin

Ez gaude ohituta langostino edo otarraintxoak onddoe-kin jatera, baina bien arteko osaketa oso goxoa da. Saltsa amerikar bat egingo diogu, otarraintxoen buru eta azalak aprobetatzatuz.

Hasteko, onddoak gure gustuko erara prestatuta izango ditugu. Tipula edo baratzuria, bakoitzak ikusi-ko du nola nahiago dituen. Bestetik, otarraintxoak gordinik izango ditugu, eta azalak eta buruak kenduko dizkiegu guztiz garbi utziz. Otarraintxo bakoitza erditik moztuko dugu bitan banatuz.

Labean sartuko ditugunez, labeko erretilu edo bandeja olio pittin batekin bustiko dugu. Erdibitutako langostinoak ohe baten moduan jarriko ditugu bandejan. Otarraintxoen gainetik onndo xaflak jarriko ditugu, eta hauen gainetik falta zaizkigun beste langostinoak.



**AGUSTIN
LASKURAIN
SUKALDARIA**

Hori prest dugula, saltsa amerikarra egiten hasiko gara. Tipula, porrua, azenarioa, kalabazina eta tomatea, guztiak txikitu eta erregosten jarriko ditugu, eta koñaka apur bat botako diogu. Koñaka erre edo alkohola joaten utziko genuke. Eta ostean, ardo pittin bat gehituko genioke.

Bukatzeko, arrain salda edukiz gero pixka bat bota eta bestela urarekin konformatu beharko ginateke. Estragoi gutxi-gutxi ere gehituko genioke. Guztia ondo egin artean, irakiten utziko dugu. Eta behin egindakoan, saltsa egingo genuke barazki guztiak txikituz.

Era berean, labean sartuko genituzke otarraintxo eta onddoak, 7-10 minutuz, 180º-tan. Labetik ateratzean platearen jarri eta amerikar saltsa botako genieke gainetik.

OSAGAIAK

- Otarraintxoak
- Onddoak
- Tipula edo baratzuria
- Olioak

Saltsa egiteko:

- Tipula bat
- Porru bat
- Azenario bat
- Kalabazin zatibat
- Tomate bat
- Koñaka pittin bat
- Ardo pittin bat
- Estragoi gutxi-gutxi



“

«Euskaldun zintzo baserritarra jada ez da existitzen»

HARITZ AZURMENDI ARRUE
FILOSOFOA

Joxe Azurmendi filosofoaren lana oinarri hartu, eta Haritz Azurmendi albizturtarra tesia burutzen ari da abertzetasuna erdigunean jarrita. Hausnarketako hainbat ideia jarri ditu mahai gainean.

”

Josu Ozaita

Ur handitan sartuz gaurkoan. Abertzetasuna edo nazionalismoak asko eragiten du herritarren bizitzan, eta zer esanik ez munduko txoko honetan jaiota. Sabino Aranaren garaitik hona hala ere, aldaketa eta ezaugarri des-

berdinak izan ditu, eta gaurkoan ere, antzematen da abertzetasuna fase berri batean sartzera doala. Jada ez dute balio atzoko ideia eta sinboloeak, baina ez dakigu zein diren biharkoak. Hausnarketa eta birpentsatze garai hauetan hainbat ideia mahai gaineratuko dira Haritz Azurmendi Arrue Al-

bizturko filosofoarekin (Albiztur, 1991). Joxe Azurmendi filosofoaren lanean oinarritura, tesia burutzen ari da abertzetasuna erdigunean jarrita. «Identitateak beharrezko diren kaka dira», esan zuen norbaitek, eta hori arakatzeko elkarritzeta da honakoa.

Haritz Azurmendi, Joxe Azurmen-



ATARIA

diren obra aztertzen. Familiakoak?

Ez, uste dut abizenak –axuri+mendi esan nahi omen du– Zegama inguruan duela jatorria eta handik izango dugu lotura. Azurmendi lizentziaturan irakurtzen hasi nintzen, Donostian, Filosofia ikasten ari nintzela. Lehenengo urtean *Espaniolak eta euskaldunak* topatu nuen etxean eta benetan interesgarria egin zitzaidan. Harrez gero etengabe itzuli izan naiz bere lanetara, gaia edozein izanda ere. Ikaragarria da zenbat gauzari buruz eta ze sakontasunekin idatzi duen bizitza osoan ze-har.

Joxe Azurmendiren lana aztertzen ari zara. Zer zehazki?

Gizarte Zientzietan bada diziplina bat Nazionalismo Ikerketak izena duena. Bertan nazioaren eta nazionalismoaren inguruan hainbat teoria argitaratu dira zer diren, zergatik dauden eta nola jokatzen duten azaltzeko. 50. hamarkadatik aurrera gorpuztu zen eta gaur egun ere ikerketa berriak ematen ari da. Masterrean hori lantzen hasi eta hasiera-hasieratik sentsazioa izan nuen agertzen zitzakidan ideiak Joxe Azurmendik bere lanetan trata-

tzen zituela. Horregatik pentsatu nuen doktoretza tesirako interesgarria litzatekeela nazionalismoaren teoria horietako ideiak Azurmendiren lanean bilatzea, zein kritika egiten ditzion ikusteko. Hortik tiraka tesiabere bidea egiten joan da, baina galderak hor daude: Zer esaten da mundu akademikoan nazionalismoaz? Azurmen-dik zer erantzuten dio esaten den horri? Non daude bien arteko zubiak?

Azurmendiren lana topikoak, uler-tzeko modu okerren eta ikerketa-ko faltsifikazioen aurkakoa da.

Bai. Azurmendik ez du teoriarik sortzen «honi buruz nik hau pentsatzen dut» esanaz. Beste era batera egiten du lan. Uste zabalduenak hartu, katedretan, prentsan edo eztabaidea politikoan aurki daitezkeenak, eta egundoko irakurketa egiten du horren inguruan: Zergatik dago uste hori zabalduta? Zein ondorio dakartzat hori onartzeak? Zein pentsamendu dago atzean? Gero, lerro artean irakurtzeko gaitasun handia dauka eta gainera liburutegi oso bat irakurtzeko gai da. Ez du teoria berririk aurkeztuko agian, baina daudenak goitik behera aztertuko ditu puntu ahul guztiak seinalatu arte.

Elkarritzetaren nondik norakoak argitzeko, adierazi modu laburrean nazioa eta nazionalismoa kontzeptuak.

50 urtean ikerlariek lortu ez dutena eskatzen ari zara [kar-kar]. Ez dago adostasunik eta honez gero definizio trinko bat emateko intentziorik ere ez. Esan dezagun nazioaren definizio orokor bat ez dagoela, baina badaudela zenbait elementu esanguratsuak izan ohi direnak. Hasteko, nazioak giza-taldeak dira, jenderik gabe ez dago naziorik. Jende horrek ezaugarriren bat parte-katzen duenaren ustea du (arraza, historia komun bat, hizkuntza, estatu bat, etorkizun bat...) eta hala izan da-din nahi du. Nazionalismoa, berriz, nazio hori indartzera bideratzen den mugimendu edo ekintza politikoa da. Iku-spegi klasikoan nazioaren mugak eta estatuarenak bat egitera bideratzen da, baina bistakoa da beti ez dela hala gertatzen. Badaude mugimendu nazionalistak independentziarik nahi ez dutenak, nahikoa errekonozimendu badutela iruditzen zaielako edo beste arrazoien batengatik.

Gainera, nola jendez osatuta dau-den, aldakorrak dira. Katalunian ez



zen independentziarik nahi duela 20 urte, orain bai. Lehen euskal nazioarentzat erlijioa nahitaezkoa zen, orain ez. Konparazioz egiten da lan, kasuak hartuz eta ikusi zer partekatzen den eta zer ez. Normalean talde-izaera, izaera ematen duen elementuen multzoa eta jorratzen dituen bide politikoak hartu ohi dira kontuan.

Joxe Azurmendi: «Iraganak badu bere pisua, baina oraina ez du iraganak determinatzen, etorkizunak baizik (askatasunak)». Zer esan nahi du honekin?

Joera oso bat dago nazioari dagokionez iraganera, historiara jotzeko. Herrialde guztiek dituzte beren mitoak: Asterix galiarra, komikieta iritsi aurretik ere, frantziar herriaren mitoa zen, Errromatarren aurrean tingo iraun zuten arbasoena. Gogoratu, baita ere, Nafar Erreinuarena konkista edo borondatzeko bat egitea izan zenaren eztabaida. Historialarien eztabaida akademiko bat baino gehiago zen, kontakizun baten edo bestearen ezarketa. Wikipedian edozein herrialderen izena sartu eta milaka urte atzea hasten da haren jatorria beti. Hain atzera joan gabe ere, Espaniako gerrikado karlismoak presentzia handia du oraindik gure artean. Normala da. Jatorriari, iraganari buruzko kontaktzunek oraina azaltzen eta ulertzen laguntzen diote.

Baina bistean da historiak ez zaituela ezertara determinatzen. Albizturek armarririk ez zuela eta Gaztelarena harti omen zuen. Eta zer? Horregatik inor baino *castellanoagoa* izan behar al dut? Santxo Handiaren ondorengoa naizela frogatzen baditate inor baino abertzaleago bihurtu behar al dut horregatik? Ba ez.

Azken batean, tokatu zaizun iragan izanda ere, egitea erabakitzentzu zuen horrek eragiten du egunerokoan. Zenbat kristau jatorren seme dira ateo? Eta Retegi euskaldunaren seme erdalduna? Hasierako ETAko zenbat kidek amaitu dute euren iraganeko

pentsamenduaren guztiz bestaldera? Etorkizunari begira egindako hautuak dira bidea egiten dutenak, horiek iraganaren izenean egiten direnean ere. Horregatik zara aske, inoren etorkizuna ez dagoelako idatzita. Nik uste Azurmendik hori azpimarratu nahi duela.

Hobsbawm historialariak dio, «nazioak berriak dira, eta historiaren irakurketa interesatua egiten dute».

Hor sartzen da nazioaren definizioa-

«Lehen euskal nazioarentzat erlijioa nahitaezkoa zen, eta orainez»

«Euskaldun idealak: mendi berdeen artean bizi zen baserritarra, jatorra, langile ona eta bekaturik gabea zen»

ren arazoa. Hobsbawmentzat benetako nazioak estatu-nazioen itxura harzten dutenak dira, estatu batean nazio bakarra ezartzea lortzen dutenak. Gainera estatuari beste ezaugari batzuk ere esleitzentzu dizkio: ekonomia integratu bat, barne mugarik ez izatea,... Gauzak horrela definituta, bai, nazioak XIX. mendean hasten dira. Bainan-

kontua da bai talde izaera berezi horren zantzuak, baita nazio hitza bera ere lehenago sortzen direla. Joanes Leizarragak, XVI. mendean beraz, bere *Itun Berriaren* sarreran, azkenean, beste nazio guztiek bezala euskaldunenak ere bere itzulpena izango zuela esaten du, adibidez.

Esandakoa, nazionalismoari dago-kionean, normalean kontua ez da egia historikoa izaten. Errelatoa ezartzeko gaitasunak eta jendearen ahanzturak egiten ditu historia nazionalak.

Nazioaren inguruko gogoeta ahalik eta aberatsena izatea aldarrakatzen duzu.

Historia bakarraren ezarketaren aurka erremedio ona iruditzen zait. Alferrikakoa da komunitate batek nazioaren ideia bakarra bilatzea haren inguruaren antolatzeko. Alferrikakoa eta okerra. Alferrik da, beti daudelako ideia desberdinak borrokan komunitate batek bere burua imajinatzerakoan. Historian zehar ideia desberdin horiek nahastuz, elkarrekin borrokatzetan edo galduz joan ohi dira. Ez dakit non entzun nuen Bidanira lehen aldiz ikurrina bat heldu zenean «hara, bizkaitarrak iritsi dituk» esan zuela norbaitek. Ikurrina, gaur egun euskal nazioaren sinbolo nahiko hedatu bat, orduan bizkaitarrena soilik zen. Esan-

dakoaren adibide garbia iruditzen zait. Eta askoz gehiago topa daitezke, hemen eta mundu osoan zehar.

Baina gainera, okerreko da. Niri beldurra ematen dit nazioaren irudi bakarra ezarri nahiak. Askoz interesgarriagoa da beste ulerkera: nazio-kideek hainbat gauzei buruz (euskararen etorkizuna, bertan hartutako era-bakiak errespetatzea edo «euskar arrazaren» defentsa, berdin dit) sentikortasuna partekatzen dutela dioena. Horrek, noski, beste galdera batzuk sortzen ditu: Nola jakin zein diren sentikortasun-puntu horiek? Nola mantendu talde izaera lausotutako ideia horren inguruaren?

Bai, lehen errazagoa zen, bazenekien euskalduna teilitu gorrien pean eta mendi berdeen artean bizi zen baserritarra zela, jatorra eta langile ona, bekaturik gabea... Baina horixe da Azurmendik *Orixeri* egiten dion kritika, euskaldun hori ez dela existitzen. Orain, gutxienez, badakigu ez dela existitzen; edo bestela esanda, hori baino askoz aldaera gehiago daudela euskaldunon artean. Eta eskerrak!

Joxe Azurmendi: Estatuaren aurrean kulturaren eta herrien autonomia lehenesten du. Nola?

Tira, nik nola ulertzen dudan esango dizut. Estatuak bertako kideen leialta-

suna behar du iraun dezan. Horregatik, eskura dauzkan baliabideak erabiltzen ditu hiritarrak bere proiektura lotzeko. Kultura da horietako bat. Norbaiten kultura estatuaarena bada, harenanako leialtasuna hazten da normalean. (Zergatik daukagu, bestela, administrazio publikoari euskara galdegitako seta? Berez euskaldunena ere badelako, baina ez digulako geure kulturaren hizkuntzan hitz egiten). Baina Azurmendirentzat gaur egungo estatu ereduak hiritar otzanak, isolak eta beretsio ofizialen sinesleak sortzen ditu, kulturaren bitartez ere bai. Horregatik, Azurmendik indar handiagoa ikusten die gizarte mugimendutik datozten iniziatiabei, euren kezkei eta interesei zuzenean heltzen dielako, estatuaren delegatu beharrean.

Joxe Azurmendi: «Nazioa hizkuntza bat hitz egiten duten multzoa da». Hizkuntza oinarrian?

Azurmendik berak dioela: «Nazioaz galdetzean norbere nazioaz galdetzen da». Azurmendiren beaunaldia izan zen euskal nazionalismoan hizkuntzaren garrantzia azpimarratu zuena, *Txillardegi* eta beste gutxi batzuen aurreko lana hartuz. Horregatik, Azurmendik nazioaz idatzentzu duenean hiz-

«Identitate nazional espainiarra duten askok egiten dute estatu katalan baten alde»

«Kontua da aberria guztiz normalizatuta dagoenean ikusezin bihurtzen dela: naturalizatu»

kuntza presente dauka normalean. Bainaz, nazio baten oinarri ezinbestekoak ez da hizkuntza propio esklusibo bat izatea, hor daude herrialde hegoamerikarrak edo Ameriketako Estatu Batuetan, gaztelerarekin eta inglesarekin. Azurmendik hori bere lanetan argi uzten du; nazioek elementu desberdinak har ditzakete oি-

narrizkotzat, baina Azurmendiren lanaren atzean dagoen kezka Euskal Herriari hizkuntzak nolako oinarria eman behar dion pentsatzea da, konkretuki.

USTEAK

Estatu-nazioen aroa amaitzea dago?

Egia esan, praktikan inoiz ez da estatu-nazioen arorik egon, estatu gehienak plurinacionalak edo multietnikoak direlako. Eredu horren isla Frantzia izan ohi da, baina argi dago hor ere badituztela euren arazoak nazio frantsesarekiko leialtasun osoa ezartzeko. Egia da 80. hamarkadako hainbat teorikorentzat eredu bakarra zela eta si-nesten zela munduko nazioak horretarantz joango zirela, kultura gero eta homogeneoagoa zabalduz euren mugetan. Gaur egun aukera hori bazterturik dago ikerlari gehienetan artean; hori bai, oraindik estatu ia denak homogeneizatzaleak dira eta kultura politikoan oso txertatuta jarraitzen du estatu-nazioen ideiak. Teorian gaindituta dago, beraz, baina alternatibak ez dira ezagutzen.

«Nazionalismoa atzerakoia da», «Nazionalismoa banatzailea da» diote batzuek. Zer diozu?

Normalean horrelako topikoak 70. hamarkadan zabaldu ziren nazioak uleratzeko modutik dator. Bereizi egiten ziren nazionalismo aurrerakoak eta atzerakoak. Lehenengoak, Hirugarren Munduan ematen ziren nonbait, mugimendu antikolonialisten barruan, eta helburua estatu modernoak sortzea izango zen, amerikarren edo sobietarren babesean. Atzerakoak, berriz, jada sortuak dauden estatueta-tik bereizteko mugimenduak lirateke; teorian estatu berri horiek demokratikoak eta zibikoak zirenez, ez zegoelako arrazoi «aurrerakoirik» horietatik alde egiteko.

Esan beharrik ez, ikuspegi horrek bere kritikak izan zituen eta 90erako zalantzaz zegoen estatu moderno ba-

tzuen garapena. Bainan gure artean hainbat pentsalarik ideia haien hartu, komeni zen gisan moldatu eta espainiarra ez beste nazionalismo guztien aurka egiteko erabili zituzten. Savater, Arteta eta konpainiak askotan errepi-katzen dituzte ideia horiek, «zertarako muga gehiago, garapena mugak eza-batzen ari bada?», «zergatik euskaraz, garapena ingelesez badator?» galde-tzen dute Espainiaren mugak patrioti-koki zaintzen dituzten kontzientekei elebakarrek. Absurdo hutsa da.

Nazionalista izan daiteke independentista izan gabe?

Nazionalismoa estatu propioa eraiki-ztera doan mugimendu gisara uler-tzen baduzu, nekez. Bainan esan dugu, nazionalismoa zuk naziotzat duzun horren autonomia eta garapena ber-matzeko mugimendu gisara ulertz gero bai, zauden estatuak hori ahalbi-detzen badu. Independentista ez-nazi-onalista ere imajina liteke eta Herrialde Katalanetan ikusten da. Identitate nazional espainiarra duten askok egiten dute estatu katalan baten alde. Izan ere, norberaren identitate nazionalean eragina du zauden estatuak, baina ez doaz batera.

Nazionalismo guztiak berdinak al dira?

Bistan da ezetz. Zuk zure nazioa arrazaren edo azalaren kolorearen arabera definitzen baduzu nekez irekiko duzu komunitatea elementu horiek ez dauzkatenentzat. Aldiz, nazioa auzi batzuen aurrean dagoen sentikortasunaren arabera definitzen baduzu askoz malguagoa da etorkizun proiektuan parte hartzeko aukera.

ABERTZALETASUNAREN OINARRIAK, DAR-DAR

Arangurenek esan zuen: «Euskadi, Basque Country. Sinboleo esanahia aldatu, patrimonializatu edo prostituitu dute. Zilegi alda?»

Sinboleoak patrimonializatzea eta prostituitza zilegi den edo ez, ez da kit. Horrelako adibide asko daude his-

torian zehar. Adibidez, berez Andalu-zia iijitoen kultura den flamenkoa espainiar kultura gisa saltzen da nazioartean. Ni haserretzen nauena in-koherentzia da, hori ez dut zilegi ikus-ten. Ez dut zilegi ikusten saltzea zurettat Euskadik zazpi probintzia dituela komeni denean eta gero zure jardunean izena Autonomia Erkidegoarekin berdintzea.

Andoni Olariaga pentsalariaren iritziz: «Denok gara abertzaleak, komunitate edo familia handi batzen kide. 2 proiektu daude, ez dago erdigunerik».

Esaldiak bide ematen digu «munduko hiritarraren» mitoa aztertzeko. Lehen-goan txio bat irakurri nuen: «Konturaz al zarete italiarrez ari dena italia-rra dela, alemanez ari dena alemana,

«Nor ez du kezkatzen argiaren fakturak, jatekoia izateak, lanak,...? Bainazaki ekonomiko soilak ez gara»

«Hobeto bizitza' bera definitzea dagakoa, eta horretan dihardute eztabaidan gaur egun»

baina espainiarrez ari dena, munduko hiritarra? Txiste bat da, baina gauza asko esaten du. Izan ere, saldu zaigu hemen abertzaleek soiliik dutela aberri bat, komunitate bateko partaidetza, eta besteak ez direla aberri txiki horren mugetan ixten. Bainan inork ezin du inongo kide ez izan. Jende multzo batekin partekatutako erreferentziak izango dituzu ezinbestean, ezin zare-lako gizartetik eta kulturen eraginetik at hezia izan.

Kontua da aberria guztiz normaliza-tuta dagoenean ikusezin bihurtzen dela (sudur puntan daukazun eta ikus-ten ez duzun galtzerdia bezalaxe), na-turalizatu egiten dela. Halako aberriko kideari iruditzen zaio bere herrialde konkretuko kontuak mundu osoan berdinak, unibertsalak direla. Michael

Billig-ek «nazionalismo banala» deitu dio horri. Norberaren unibertsala, bestearena partikularra. Bainan bene-tan, munduko hiritar asko dago bere herrialdea munduaren zilbortzat izan eta haren muga mentalak inoiz igaro ez dituena. Euskaldunok hori horrela ez dela ezinbestean ikusten dugu, be-ratz akats bera errepi-katzeko aukera gutxiago dugula esango nuke. Hala behar genuke behintzat.



Azkenaldian abertzalesunaren inguruko hausnarketa berriak ari dira mahai gaineratzen, eta paradigma aldaketa datorrela dirudi. Lehengo ideia batzuek ez dirudi gaurko balio dutenik. Nola ari zara bizi zitzen eztabaidea hau?

Interes handiarekin. Urte gutxitan gauzak asko aldatu dira gurean eta kanpoan ere planteamendu berriak daude. Eskozian eta Katalunian eman

diren eztabaidak ikaragarri aberastu dute nazionalismoaren edo independentismoaren arloa. Horri gehitzen bazaio gurean haize berriak datozela, batez ere feminismoaren eta beste korrone batzuen eskutik, panorama interesgarria daukagu benetan. Aspaldian ez bezalako eztabaida dago euskararen edo independentziaren harira eta gotortuta zeuden hainbat ideia zalentzan jartzeko balio izan du.

dea. Orain agian gehiago lehenesten da proiektua bera, independentziako bideak berak subjektua sortuko duenaren esperantzaren. Noski, horrek jende ahalik eta gehienarengana heldu beharra dakar proiektuan partaide ahalik eta gehiena egoteko. Ekonomiak horretarako indar handia dauka: Nor ez du kezkatzen argiaren fakturak, jatekoa izateak, lanak,...? Bainazaki ekonomiko soilak ere ez gara, ba-

Baina badira ogiari garantia gehiago eman behar zaiola diotenak, identitatea eta batzen gaitzten sinboloak ahaztu gabe hala ere. Garrantzia dute identitateak eta sinboloek?

Sinboloak beti sortuko dira. Ezin da ezikusiarena egin gizakiaren alde sozialarekin eta horrek sortzen dituen identitatea eta sinboloekin. Ez da zertan kontua maila nazionalean planteatu. Tolosaldean badago bizitza komun bat, jendea elkarreraginean dago eta horrek gauzak sortzen ditu. Hartu Babarrunaren Astea. Esan nahi al du horrek asteko gauza guztietan parte hartu behar duela Tolosaldeko den orok? Ez. Bainazaki Tolosaldeko den ia edonork jakingo du Babarrunaren Astean zer ohitura dauden, sariketa izango dela, kalean giroa egongo dela, tabernetan otorduak, parranda... Donostiar bati ia ezer esaten ez dion sinbolo batek Tolosan esanahia dauka eta horrek identitate jakin bat bideratzen du. Ez noski tolosar guztientzat berdina, batzuk sariketara joango dira, besteak otorduetara eta besteak etxean geratuko dira Tolosako babarruna Albizturkoa dela eta boikotean. Bainazaki izango dute erreferentzia puntugisara.

Abertzaleasunaren imajinarioan zeuden sinboloak zaharkitzentzat direla dirudi. Sinbolo berriak beharko genituzke? Zein ikusten dituzu interesarri?

Zaharkitu dira gizartea bera aldatu delako. Erreferentziak aldatu dira. Euskaldun zintzo baserritarra jada ez da existitzen. Ikerriakin hasieran zeukan erreferentzia galdu du (hala nahi izan delako). Eta sinbolo berriak etorriko dira, kontua da nondik etorriko diren. Zerutik etorri zain egongo gara, euskaldun guztiona izan behar zuen Euskararen Txantxangorri txiki ahul hori bezala? Ala gu hasiko gara sortu nahi dugun mundu hori praktikan jarri eta ikurrak proposatzen?



Independentismoaren erdigunean ekonomiaren gaia jarri behar dela diote batzuek. «Estatua behar dugu hobeto bizi zeko». Zer esango zenuke Azurmendiren lana oinarri? Edo bestela, zure iritzitik.

Aldaketa bat eman dela iruditzen zait independentismoan, nahiz eta intuizio soil bat izan. Lehen iraultzaren subjektua, iraultza egingo zuen taldea definitzen zen lehenengo eta gero bi-

ditugu beste ertz batzuk eta ekonomian soilik oinarritzeak ez die irtenbiderik ematen. Bi egon daitezke oso ados proiektu ekonomikoan, baina bat goitik behera matxista bada eta besteak esperantzak baditu etorkizuneko gizartea feministea izateko, ezinbestean talkak egongo dira. «Hobeto bizi ztea» bera definitzea da gakoa eta horretan dihardute eztabaidan gaur egun.

IRANGO AMETSAK AZALERA

Zahra Sabri artista irandarraren erakusketa ikusgai dago Topic-en 2017ko martxoaren 5a arte. ‘Irango ameslari bat’ du izena, eta «Iran herrialdearen edertasuna erakustea» da bere helburua. Zortzi ikuskizun ezberdinak txotxongiloak daude bertan, eta Irango istorioak dituzte oinarri gehienek.



Irudian, 'Ama kementsua eta haren seme-alabak' ikusvizuneko txotxongiloetako bat. ANE URKOLA

Ane Urkola

22

Nola amesten ote dute Iranen? Zer amesten ote dute bertako haurrek? Norekin? Zein ote dira bertako istorio-en protagonistak? Galdera horien erantzunak ekarri ditu Zahra Sabri irandar artistak *Irango ameslari bat* erakusketan. Zahra Sabri da erakusketako horretako zuzendaria, gidoilaria eta artista plastikoa. Irandarra da bera, Yase Tammam txotxongilo konpainiaren sortzailea. 2017ko martxora arte egongo da zabalik erakusketa munduko txotxongiloen etxe handietakoan.

Erakusketa honen helburua da «erakustea Iran herrialdearen edertasuna» eta konpainia horren lan «bikaina». 1990ean sortu zen honako konpainia eta mundu guztian arrakasta handia lortu du. Sari asko ere lortu dituzte beren ikuskizunek: 2009an, Pragako Txotxongilo Antzerki jaialdian lehen saria eskuratu zuen; ohorezko aipamena ere lortu zuen Varsoviako Helduentzako Animaziozko Film eta Txotxongilo Antzerkiaren Nazioarteko jaialdiaren 10.edizioan.

Zahra Sabrik ia hamazazpi urtez egin du lan zuzendari, eszenografo eta txotxongiloen diseinatzaile gisa. Ez da erraza izan, ordea, bere ibilbidea: «Benetako heroi bat da, txotxongiloaren munduko borrokalari bat», adierazi du Idoia Otegi Topic-eko zuzendaria. «Iranen txotxongilolariek ez daukate aritzeko aukera handirik; txotxongiloen egindako antzerkiak ez daude debakututa, baina ez dira antolatzen. Bi urtean behin egiten den jaialdia da artisten erakusleihoa», azaldu du Otegik. «Gaur egun lanean ari dira hori al-



Irudian, 'Bernarda Albaren etxea' ikuskizuneko txotxongiloak. ANE URKOLA

**«Benetako heroi bat da
Zahra Sabri, txotxongiloaren
munduko borrokalari
handi bat da»**

IDOYA OTEGUI
TOPIC-EKO ZUZENDARIA

datzeko, baina hori da egoera oraindik. Horregatik, Zahra Sabri benetako *rara avis* bat da, beren lanari eusteaz gain, ikuskizun interesgarriak antolatu dituen artista gutxietako bat».

**Artistaren eta Topic-en arteko
lotura estua**

Sabriren eta Topic-en arteko lotura ez da berria. 2011n, *The Earth and The Universe* lana aurkeztu zuen Topic zentroan: «Lan horren magiak eta poesiak liluratu egin zituen emanaldia ikustera etorri ziren guztiak», adierazi du Topic-eko zuzendaria. Gero, «eskuzabaltasun handiz», Iranen tradizionalak diren harizko txotxongiloen sorta bat egin eta Topic-i oparitu zion. Topic-ek bere artean zuen ordurako





Politxilinelaren ibilbideak erakusketa, eta erakusketa horren parte bihurtu zen Irango txotxongiloekin osatutako erakusketa ere.

Zortzi ikuskizunetako txotxongiloak ikusgai

«Istorio oso gogorrak dira, eta ikuspuntu poetiko eta literarioa daukate», adierazi du Maria San Sebastian Topic Museo eta Dokumentazio arduradunak. San Sebastianek adierazi duenez, «erakusketaren eszenografia asko lan-

«Erakusketaren eszenografia asko landu da, hau da, txotxongilo bakoitzaren lekua asko zaindu dugu»

MARIA SAN SEBASTIAN
TOPICMUSEO ETA DOKUMENTAZIO ARDURADUNA

du da, hau da, txotxongilo bakoitzaren lekua asko zaindu dugu». Erakusketan bi ikuskizunetako txotxongiloak ikusi ahal izango dituzte. Batetik, *Kheimeh Shab Bazi* izeneko ikuskizun tradizio-

naleko txotxongiloak ikus daitezke; ikuskizun horretako heroia da Mubarak. Horretaz gain, berak egindako beste sei ikuskizunetako txotxongiloak ere ikus daitezke erakusketan. Ikuskizunak ez dituzte zuzenean eskaintzen, baina proiektorean ikus daitezke horietako bi erakusketaren gelan bertan. *Zortzi une* ikuskizuneko txotxongiloak ikus daitezke, esaterako. Mundu osoko zortzi idazle ezezagunek idatzitako zortzi ipuinez osatutako ikuskizuna da. «60 txotxongilos osatzen dute ikuskizuna. Nerabe eta helduentzat zuzendutako ikuskizuna da, eta Teherango (Iran) X. Nazioarteko Txotxongilo Jaialdian estreinatu zen. 30 emanaldi egin dituzte guztira Teheranen, Pragan eta Istanbulen.

Irango artista izanik, bere herrialdeko ikuskizunetako txotxongiloak ere ikus daitezke erakusketan. Hain zuzen ere, Sabrik berak diseinatutako *Tooti Par* ikuskizuneko txotxongiloak ere ikus daitezke Topic zentroan. Ikuskizun hori Molana Rumi artista irandarraren *Loroa eta merkataria* ipuinean oinarritutako ikuskizuna da: «Arrain bat hainbat aldiz saiatu da arrainontzitik irteten. Itsasora iritsi nahi du, baina barrura eramatene dute beti. Egun batean, haizeak Rumiren Masnabiko istorio bat kontatua dio, *Loroa eta merkataria* izenekoa. Istorio horretan, loro batek hildako baten itxurak egin ditu aske izateko. Arraina gauza bera egiten saiatu da, baina...». Ikuskizun horretako txotxongiloek oso hatz txikiak dituzte, eta ez dago testurik, musika soilik.

Lurra eta unibertsoa ikuskizuna da Iranen sortutako bigarrena. Rumi poeta-k idatzitako zazpi ipuin eta oinarritutako ikuskizuna da: istoriorik luzearra Moses eta nekazari bati buruzkoa da. Hain zuzen, ikuskizun horretako



txotxongiloen ezaugarririk adierazgarrienak dira aurpegiān dituzten ispilu zatiak, eta horiek Jainkoaren presentzia islatzen dute. Txotxongilo guztien koloreak, baita behiarenak ere, zeruaren kolorekoak dira: urdina, grisa eta zuria. Hainbat herrialdetan antzeztu dute ikuskizun hori: Frantzian, Alemanian, Errusian, Indian, Polonian eta Kazakhstanen, bestek beste. Kalitate handiko erakusketa da, eta hainbat sari irabazi ditu: Pragako Nazioarteko Txotxongilo Jaialdiko lehen saria lotu zuen 2009an eta Poloniako Txotxongilo Artearen Nazioarteko Jaialdiko sari nagusia eskuratu zuen 2012an.

Ameslari izatearen ezaugarrria «gehien» ikusten da XI. eta XII. mendeetako Khayyman poeta irandarraren *Zenbatu bat arte* ikuskizunean: «Aberria galdu duten hiru soldaduk alde egin dute bombardatu behar zuten hiritik. Mehatxu egin zieten suntsitu egingo dituztela esanez, agindutako zereginha betetzen ez bazuten. Euria hasi da, eta gotorlekua eraikitzeko buztina disolbatu egin da. Beste erabilera bat emango diote buztin horri, poztasunez eta esperantzaz betetako erabilera». Hain zuzen, txotxongilo guztiek buztinarekin eraikitakoak dira. Iranen, Errusian, Portugalelen, Alemanian, Suedian eta Polonian, eta Sormenaren saria lortu zuen Poloniako Helduentzako Txotxongilo eta Animazioiko X. Nazioarteko Jaialdian.

Federico Garcia Lorcaren *Bernarda Albaren Etxea* ikuskizuneko txotxongiloak ere



ikus daitezke Topic-en. Kolore bereko eta forma bereko 70 txotxongiloek osatzen dute emanaldia: «Ez dute ez begi, ez sudur ez eta ahorik ere. Bere oihalak monjeen eta jantzi espainiarren arteko konbinazioak dira». Txotxongilo guz-

tiek bularrera josita dituzte eskuak. Iranen eta Erresuma Batuan antzeztu zuten emanaldia, 2010ean eta 2012an, hurrenez hurrez.

Ama kementsua eta haren seme-alabak da bere azken ikuskizuna. Bere hiru haurrez gain, soldadu batzuk ere parte hartzen dute emanaldian: ez dute eskurik, ez eta zapatarik ere. Hanka handiak dituzte eta intxaure baten azalarekin egindako txapelak dituzte.

Ametsetatik oholtzeta

Erakusketaren izena *Irango ameslari bat* da, eta ez da kasualitatea. Ameslari izena artistaren abizenetik dator.

«Mundu osoak ezagutzen ninduen Zahra Sabri moduan. Beti falta zen nire abizeneko zati bat nire izena esaten zuteanean: Khyali. Hitz horrek *ameslaria* esan nahi du», azaldu du artistak. «Nire lagunek ez zekiten horren berri nire ikuskizunak oholtza gainean eskaintzen hasi nintzen arte», azaldu du. «Momentu horretan hasi ziren nire burua ameslaritzat hartzen».

Bere ametsak oholtza gainera eraman ditu Sabrik txotxongiloen bitartez. Urte askotan entzundako istorioek eragindako sentipenak eta pentsamenduak azaleratu ditu txotxongiloekin osatutako ikuskizunen bitartez. Atearen parean jarri eta parez pare ditu bisitariak harizko pertsonaiak. Iluntasunean murgildu da; ametsetatik errealtatera jauzi egiteko tenorea da. «Goza dezazuen espero dut».





Opari egokienaren bila



IDOIA APAOLAZA
PSIKOPEDAGOGOA ETA
EKIMENA ZENTROKO
ZUZENDARIA

Gabonak gero eta gertuago dauzkagu eta garai hauetan jada zer oparitu eta nori, buruan bueltaka darabilzkigu. Pentsamendu eta behar honen jakitun dira saltzai-leak ere eta denbora gutxian milaka iragarki jasoko ditugu, paperez zein modu digitalean.

Puntu horretan, haurrentzat zer oparitu ere pentsatzen jarri gaude, eta ziur familia askotan Olentzeroarentzat eskutitzak idazten hasiak direla hainbat haur eta gaztetxo. Hori dela eta opariak erosteko orduan zenbait aspektu kontuan izatea komenigarria da.

- Opari asko erostea ez da komenigarria. Hainbeste oparirekin haurrak ez du baloratzen oparitu zaiona, eta azkenean aspertu egiten da.
- Kontuan hartu opari bakoitzaren atzean ezkutatzan den mezua. Zenbait opari sexista dira (arrosa neskentzat, eta plantxa bat edo labadura bat) edota alderantziz,(urdina mutilentzat, eta pistola edo kotxe bat).
- Haurrari edo gaztetxoari entzun zer nahi duen oparitza, eta egokia dela iruditzen bazaigu erosio, hala ere kontuan izan guraso bezala egokia iruditzen zaizuen.
- Haurrak edo gaztetxoak nahi duen opariaz gain, komenigarria da libururen bat oparitza.
- Liburuak mezu pedagogikoren bat izatea aholkagarria da. Emozioak lantzen dituzten liburuak, harremanak lantzen dituena, edo irakurtzen ikasten ari bada, irudi asko eta letra handi eta garbiak dituena.
- Merkataritza sostengatzeko, aholkagarria da denda txikietan erostea, eta ondoren hondakinak birziklatu eta egoki kudeatzea.
- Haurraren adina ere kontuan izan, haurra txikia bada 0-3 urte bitartean, joera izaten duten jostailua ahora gerturatzea, eta arriskutsua izan daiteke pieza txikiak irensteko.
- Familia jokoak egokiak eta aproposak dira elkarrekin jolastu eta afektibitatea lantzeko.

**«Haur edo gaztetxoak
nahi duen opariaz gain,
komenigarria da
libururen bat oparitza»**

Agenda

OSTIRALA ABENDUAK 9

ALEGIA

DOKUMENTALA

19:00. *Gure kabuz ala hil*, dokumentala. Alegiako Gaztetxearen 29. urteurrenaren barruan. Zinean.

ALKIZA

BILERA

21:00. Itxuraingo sailen gaineko bilera irekia izango da, udalak deituta, Don Juanena etxearen. Baserritarak, nekazaritz eta abeltzaintza lanetan jarduten direnei edota ganadua larrean jartzeko interesa dutenei zuzendua da bilera.

TOLOSA

EGUBERRIETAKO KARRUSELA

10:00-13:00 / 16:00-20:00. Trianguloa plazan jarri dute urtero moduan, eta bidaia bat, euro 1, hiru bidaia, 2 euro eta zortzi bidaia 5 euro ordaindu beharko dira.

26

ZEINU HIZKUNTZAREN

VII. NAZIOARTEKO JAIALDIA

19:30. Ongi-etorría parte hartzaleei, Topic zentroan.

20:30. *Retrato de un nueve film luzea*, Topic zentroan. Sarrera: 3 euro.

LARUNBATA ABENDUAK 10

ALEGIA

GAZTETXEAREN 29. URTEURRENA

11:00. Altzoko BehiEkorra bisita gidatua eta hamaiketakoa.

14:30. Babarrun jatea.

Jarraian. Apalatxe.

19:00. Txaranga.

22:30. Afu eta Skasti taldeen kontzertua.

AMASA-VILLABONA


TAILERRA

10:00-13:00. Maskulinitate tailerra egingo dute gaztetxeen, Onddo Gazte Asanbladak antolatuta. «Maskulinitate hegemonikoak kuestionatu eta deseraikeuntas prozesuari ekiteko».

ORENDAIN

SINADURA BILKETA ETA AFARIA

20:00. Gure Esku Dago - Giltzarriaren herri



IXILDUEN OIHARTZUNAK ENTZUNGO DIRA TOLOSAN

Ixilduen Oihartzunak 1936-2016 musika giroan etorriko da Tolosara. Aste osoko egitaraua prestatu dute, abenduaren 10ean Zerkausian egingo den *Oroimena etorkizunaren giltza* festatxoak emango dio hasiera. Atzetik etorriko dira dokumental eta hitzaldi sortak: *Indomables. Una historia de mujeres libres*; *Frankismoaren aurkako argentinar eta udalen kerellak*; *Gipuzkoako eta Tolosaldeko miliziar Anarkistak* edota *Zerraute Ogia, gose garalko grebak*.

afaria Eltxo elkartean eta sinadura bilketa egingo dira..

TOLOSA

ZEINU HIZKUNTZAREN

VII. NAZIOARTEKO JAIALDIA

09:30. Parte hartzaleen topaketa izango da, kultur etxearen. Veruren hitzaldia, eta zeinu hizkuntzako zinemaren egungo egoerari buruzko eztabaidea.

16:30-21:00. Film laburren proiekzioa, Topic zentroan: Bartzelonako *Samsung, La personalidad, Una historia más, Celulara 666lanak*; Madrilgo, *En 8 días te no te quiero*; Ingalaterrako *Honeymoon*; Norvegiako *Ut 2 E01 final*; Kolonbiako *Carolina*; Pontevedrako *Las Muelas de Cucó*, eta Kanarietako *Libertad* kuski ahal izango dira. Bukatzeko, Edgar Murilloren *La vida perfecta* aurkeztuko dute. Sarrera: 6 euro.

Ondoren. Saribananaketa.

EGUBERRIETAKO KARRUSELA

10:00-13:00 / 16:00-20:00. Trianguloa plazan jarri dute urtero moduan, eta bidaia

bat, euro 1, hiru bidaia, 2 euro eta zortzi bidaia 5 euro ordaindu beharko dira.

IRRITXOEN EGUNA

11:00. Beste urte batez Irritxoen eguna ospatuko da Bonberenean. Pirritx, Porrotx, Marimots eta hainbat lagun izango dira.

IXILDUEN OIHARTZUNAK

1936-2016

18:00. *Oroimena etorkizunaren giltza* festatxo egingo da, Zerkausian. Panel pintaketak, gaztaina erreak, sagardo berria, musika zuzenean.... Ziribilio Sound system reggae-rap-dancehall. Fruikis taldea, munduko musika reggae-rap-soul-elektronika.

MUSIKA

20:00. KUP taldeak Gabonetako kontzertua eskainiko du, Santa Klara elizan.

TOLOSALDEA

KALERA KALERA

Kotxe Karabana Tolosatik.

16:00. Usabal poligonoa.

16:15. Anoetako plaza.

16:30. Amasa-Villabona.

IGANDEA ABENDUAK 11

ALTZO

AZOKA EGUNA

10:00-14:00. Oalentzerotan Jakinminez ekimenaren barruan antolatu du lehen aldziz, Azoka Eguna. Denetariko postuak izango dira, guztira 25 inguru: garaiko produktuak, eskulanak, artisauak,.... Dozena erdi bat postu herrikoak, eta besteak gonbidatuak izango dira. Plazan izango da, eta eguraldi txarra eginez gero, pilotalekuak.

AMASA-VILLABONA

KONTZERTUA

19:30. Alos Quartet taldeak kontzertua eskainiko du Gurea antzokian.

ORENDAIN

URTEKO BATZARRA

11:00. Urteko batzarra egingo dute herritarrek, udaletxeen, udalak deituta. Udaletik eskuatu dute etxe bakotzetik pertsona bana joateko bertara.

TOLOSA

EGUBERRIETAKO KARRUSELA

10:00-13:00 / 16:00-20:00. Trianguloa plazan jarri dute urtero moduan, eta bidaia bat, euro 1, hiru bidaia, 2 euro eta zortzi bidaia 5 euro ordaindu beharko dira.

ASTELEHENA ABENDUAK 12

ANOETA

ENNECO PROIEKTUAREN

AURKEZPENA

19:00. Nafarroako erreinuaren historia berreskuratua eta ezagutarazteko helburua duen proiektuaren aurkezpena izango da, Nafarroa Bizirik fundazioko kideen eskutik, udaletxeko areto nagusian.



TOLOSA

ENERGIA TAILERRA

11:00. Tolosaldea Piztu ekimenaren barruan izango da tailerra. Eguneko zentroan.

EGUBERRIETAKO KARRUSELA

10:00-13:00 / 16:00-20:00. Trianguloa plazan jarri dute urtero moduan, eta bidaia bat, euro 1, hiru bidaia, 2 euro eta zortzi bidaia 5 euro ordaindu beharko dira.

ODOLEMATEA

18:00-20:30. Hileroko odol ateratzea. Odola emateko txandarako zenbakiak sarreran uzten dira, egunean bertan, 12:00etatik aurrera. Kultur etxeen.

IRAKURKETA KLUBA

18:00-20:30. Zimurrik liburua, Paco Rocarena. Beste Alzheimer krisi bat izan du Emiliok eta familiak zaharren egoitzia batera eraman du. Han jende berria ezagutuko du; bere adineko kideak –nork bere ezaugarri klinikoekin eta bere nortasun propioarekin– batetik, eta zaintzaileak, bestetik, eta Emiliok haienkin bizi zituen ikasiko du. Migel gelakideak lagunduko dio gaitzaren kontra borrokatzenean, memoria ez galtzen ahalegintzen, azken solairura, ezinduenera, eraman ez dezaten. Dinamizatzalea: Joseba Laratxe izango da.

IXILDUEN OIHARTZUNAK

1936-2016

19:00. *Indomables. Una historia de mujeres libres* dokumentala eskainiko dute, kultur etxeen. Ondoren, Juan Felipe zuzendariekin solasaldia izango da.

ZIZURKIL

LIBURUAREN ASTEA

18:00-20:00. Macarena Sanchez idazle zizurkildarra bere eleberri errromantikoa sinatzen ariko da Plazida Otaño liburutegian.

ZIZURKIL

EGUBERRIETAKO KONTZERTUA

18:30. Loatzo Musika Eskolaren kontzertua. Arantzazuko Amaren eliza.

ZINEMA



LA RECONQUISTA

Ostirala (19:15 eta 21:45).

Zine foruma.

Leidor, Tolosa.



DR. STRANGE

Larunbata, 19:30. Eta 22:30, jatorrizko bertsioan, gaztelerazkao azpitituluekin.

Leidor, Tolosa.



OZZY

Haurrentzako zinema euskaraz.

Igandea (17:00).

Leidor, Tolosa.



EL CIUDADANO ILUSTRE

Igandea (19:30 eta 22:00).

Astelehena (21:00).

Leidor, Tolosa.

Nork nor?



TXOMIN AZPIROZ
HARITUZ-EKOKIDEA

Abenduaren 3an bueltan
natorkizu hausnartzera.
Gure papera arrazoitzeko
egiten dugun papera...
«Euskaraz bizi nahi dut» sarritan
dabil hitzetik hortzera
biharamunez, erderaz «suelto»
eta sortzen zait galdera:
Nork behar dun nor, ba al dakigu?
Ez baita gauza berbera...
Gure euskerak eguna edo
gure egunek euskera?



Doinua

Oso politazaraizatez

Oihuaren oihartzuna

28

Bere etxeko leihotik sartzen diren eguzki izpiek itzarri dute izeba panpoxa. Nahikoa egingo zuen lo gaur. Amonak dio, ohetik altxa, leihotik begiratu, eta zelaian sumatu duen ihintzari begira jarrí dela, bart freskatutakoari begira. Txorien kantuaz gozatzen ari zela, eskuak sabelera eraman, burua makurtu, eta gurari bat eskatu du bien partez. Bai, bien partez, izan ere, gaur bi dira jada.

Jarraian, ostikada entzun du bere sabelean; jakina, ilusiorik ez zaio falta. Mila eta bat gau gehiagoz saiatu ondoren, jada barnean du-eta, bere maitea. Erronkak atsegin ditu, ezin izebak zailenari uko egin, alajaina.

Onutsik, ibilera leunez, logelako pianora joan eta nota batzuk jotzea otu zaio. Aulkia pianoagandik ohi baino atzerago kokatu du; besoak ohi baino gehiago luzatu ditu; hankak zer- txobait zabaldu. Eta bere senak zioen kantu jotzen hasi dela esatera ausar-

ten naiz. Atzamarrek irrist egiten zioten teklatuaren gainean, bizinahiaren notak entzuten zituen bitartean.

Eztizko ametsak egia bilakatzen direla bazekien, benetan nahi dena iritsiko denaren sentsazioaz; izebatxori iritsi zaio, behintzat. Kosta ahala kosta. Orain, prozesuan, ezin hobeto zainduko du, hilabete hauek gozatuz, eta ilusio bizi itxaronez.

Izan ere, badaki oraingoan ez dela etengo landare alai baten bidea. Bigarren hegaldi honetan indartsuago sentitzen dela, hegaldi librea bailitzan. Eta ibilian ibilian, beste bat bidea ematea komeni dela ikasi du.

Logelara zihuala, ia irrist egin du; baldar dabil eta anaiaik eramango du ospitalera. Dena prest dauka. Ez dakit, ordea, izena argi ote duen. Berdin dio, bururatuko zaio, bitartean dena ondo joan dadila.

Amonak dio zintzoa izango dela, noizean behin gaiztakeriaren bat-edo eginez.




MADDI AMIANO ALLUE
IKASLEA

**Eztizko ametsak egia
bilakatzen direla
bazekien, benetan nahi
denairitsiko denaren
sentsazioaz. Izebatxori
iritsi zaio, behintzat.**

KOMIKIA GORKA SALABERRIA

Larousse entzikopediaren liburuki bat



"Guda eta pakea"
Lev Tolstoi



Gabonetako jostailuen katalogoa



I. Kuleroak

Pixalarria dut. Kale bazterrean egin dugu topo. Emari luzeko pixa-errika eginda nago ni. Azken tantak putzura erortzeko tabernan baino dantza gehiago egin dut. Bera, iritsi berri. Ezagun ezezagunak gara. Lepoa jokatuko nuke, tabernan gurutzatuko bagina, ez lidakeela kasurik egingo. Ezta bekainak jasota ere. *Pixatoki* publiko ilegalean, ordea, agurtu egin nau. Edo hori uste dut, behintzat, ahoa ireki-edo, eta burua altxatu bai-

-*Gabon!* Erantzun diot nik. Erantzun, berak kasu egin badit, noski.

Atzerrian aurrez aurre topo egingo baina, kasik seguru, hizketan geldituko ginakeke. Igogailuan izaten diren elkarrizketa bertsua izango genuke:

-*Hara, zu ere hemen!* Esango nioke, bera hor dagoela jakutin.

-*Bai, oporretan.* Beste ebidentzia batekin erantzungo lidake.

-*Baita ni ere.* Zentzugabea zenari tiraka jarraituko nuke; eta, jarraian, zentzuzko zerbaite esateko ahalegina egingo nuke, baina funtsik ez duen esaldi potoloegia esaten bukatuko

nuke, esan ahala damutzeko. Ohi bezala. Luze egiten diren bi minutuak pasatuta, isiluneko segundo eternalek elkarritzetaren haria jandakoan, eta monosilaboek protagonismo gehiegiz hartutakoan, elkar agurtuko genuke.

-*Ea beste egunen batean topatzen garen!* Esango lidake, gezurretan.

-*Hori da.* Zintzoa izan nahian, nik. Zintzotasunez egia esan beharrean, gezurra esango nioke. Zintzoki, nola ez.

Gizendu naizela onartu baina, nahiago izan dut ar-mairuko etiketetako zenbakietan jarraitu, eta ia kabitzen ez zaizkidan prakak erosiditut, argalduko naizeneraren esperantzan. Galtzak lotzeko saiakeran, hizketan hasi zait ezagun ezezaguna:

-*Tapatuko? Bainaz ez begiratu, mesedez.* Eskatu dit.

Gauaren ilunak ezin ditu gorde bere lotsak. Bizkarra eman diot, beldurrek ezkutuan jarrai deztaren. Bainaz bere eskakizunari ere bizkar eman diot instant batez. Nahi gabe, gordeketan jolasean ari den umeak eskuinekin begiak tapatuta zenbatzen dueneko *nahi gabe* berberarekin. Belaunetaraino jaitsita zituen kuleroak ikusi dizkiot, nahi gabe.



OLATZ ARTOLA APEZTEGIA
KAZETARIA ETA BIDEOGILEA

Lepoa jokatuko nuke, tabernan gurutzatuko bagina, ez lidakeela kasurik egingo. Ezta bekainak jasota ere. 'Pixatoki' publiko ilegalean, ordea, agurtu egin nau.

EGURALDIA



OSTIRALA

Beste egun batez hego haizea eta eguraldi lasaiarekin jarraituko dugu. Goiza fresko antzekoa izango da, baina hego haizeari esker temperaturak balio nahiko goxoetan mugituko dira: maximak 15-16 °tan. Zeruari dagokionean aitzakia gutxi. Goizean erdi eta goi-mailako hodei batzuk izan arren, arratsaldean garbitu eta ia oskarbi geratuko da.



**IKER
IBARLUZEA**
EGURALDI
MUTILA

eta jabe izango da. Goiz partean behelaino pixka bat izango da, baina ondoren segituan altxa eta berriz ere hego haizearen eraginez oso temperatura atseginak izango ditugu. Ostiralekoarekin alderatuz gradu pare bat gora egin, eta 17-18 gradutan ibiliko da.

30

IGANDEA

Berriz ere eguraldi bikaina. Goizean behe laino puntu bat izango dugu, baina jaso ostean giro eguzkitsua nagusituko zaigu. Haizeak goizean hego ukitua izango du eta eguerdian ipar-ekialdera aldatuko da. Horrekin zer- txobait jaitsiko da temperatura baina hala ere maximak 15-16 gradu atseginetan geratuko dira.

ASTELEHENA

Joera berdinari eutsiko dio baina ñabardura bakarra temperaturak beste koskatxo bat behera egingo duela da. Horrekin goiza hotzagoa izango da, non minimoak 6-8 gradutan geratuko diren, eta egunez maximak 13-15 gradutan geratuko zaizkigu. Zeruari dagokionez goizeko behe-lainoa kenduta, ondoren giro eguzkitsua.

OSTIRALA
09



IGANDEA
11



LARUNBATA
10



ASTELEHENA
12



ZORION AGURRAK

Urtebetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaloberriak...

943 65 56 95

ataria@ataria.eus

San Esteban 20
Tolosa

Argazkia bi egun lehenago
ekarri mesedes

FARMAZIAK



ABENDUAK 9, OSTIRALA TOLOSA

Egunekoia. Olarreaga, I.
Korreo kalea, 2.
Telefonoa: 943 67 0128.

ABENDUAK 10, LARUNBATA TOLOSA

Egunekoia. Santamaria, I.
Nafarroa etorbidea, 2.
Telefonoa: 943 65 46 10.

ABENDUAK 11, IGANDEA TOLOSA

Egunekoia. Olarreaga, M.
Martin J. Iraola etorbidea, 10.
Telefonoa: 943 67 24 38.

ABENDUAK 12, ASTELEHENA TOLOSA

Egunekoia. Bengoetxea, E.
Kale Nagusia, 7.
Telefonoa: 943 67 06 48.

**EGUNERO GAUEKO
GUARDIAKO FARMAZIA:**
TOLOSA • Morant, R.
Zabalarraga Lorategiak, 1.
Tel.: 943 67 38 49.

ATARIA IRRATIA



OSTIRALA

Egun osoan zehar.

Euskal musika egun osoan zehar.

LARUNBATA

Egun osoan zehar.

Euskal musika egun osoan zehar.

16:00. Entzuteko Jaiok.

18:00. Entzuteko Jaiok.

IGANDEA

Egun osoan zehar.

Euskal musika egun osoan zehar.

16:00. Entzuteko Jaiok.

18:00. Entzuteko Jaiok.

ASTELEHENA

09:00. Pasahitzia magazina.

Iker Ibarluzearen eguraldi iragarpena, asteburuak utzitakoaren errepasoak, Iñaki Zubeldia *Kale Kantoitik*, eta lehiaketaren tartea.

11:00. Hamaliketakoa.

Gure eskuadeari asteroko begirada. Gaurkoan, Alegialdea.

12:00. Entzuteko Jaiok musika saioa.

16:00. Zebraibidea.

18:00. Goizeko saioek utzitako onena.

**ataria
IRRATIA**

107.6 fm
www.ataria.eus

makrobiotika bidaiaria

solasaldia eguraldiak

atarialluna kokondo

(h)ari naizela azoka

hamaliketakoa

entzuteko jaiok

albisteak lehiaketa

kantazgora! artea

ekokultura kalekantoiotik

pasahitzza errezeptza

eutsigolarri! zebraibidea

psikologoa hauspoartearen



atariak DISEINATZAILE GRAFIKOA BEHAR DU

BEHARREZKOIA

- Diseinu grafikoaren inguruko ikasketak izatea.
- QuarkXPress, Illustrator eta Photoshop programa informatikoak menderatzea.
- Euskalduna.

LANPOSTUAREN EZAGARRIAK

- Bi urteko lan utzildia betetzeko da.
- Egunkariaren zierrearen ardura.
- Maketatzalea eta produkzio editorea.

Interesatuak bidali ditzala curriculuma, aurkezpen-gutuna, portfolio digitala eta bestelako jakingarriak
tkt@ataria.eus helbidera abenduaren 18a baino lehen.



Orendaingo Udala



ORENDAIN DENON ARTEAN ERABAKIZ

Urteko herri batzarra
Abenduak 11, igandea
11:00etan udaletxeko areto nagusian.

Etxe bakoitzetik gutxienez batek joan behar du.

Oparitarako ideiarik behar?



atarikide
bazara,
oparitu
iezaiozu
urtebeteko
harpidetza
%15eko
deskontuarekin
(62€) zuk nahi
duzunari

Informa zaitez: 943 65 56 95 edo atarikide@ataria.eus

Plaza Etxeberri JATEK XEA

Pedro Mari Oláizola Plaza
943 69 19 36
Zizurkil




MENU GUZTIETAN EDARIA ETA BEZa BARNE

eguneko menua ASTELEHENETIK OSTRALERA	12 €
larubateko eguneko menua LARUNBATETAN	20 €
babarrun menu konpleteoa LARUNBATETAN EDO ASTE EGUNETAN ALDEZ AURRETIK ESKATUTA	20 €
eguneko menu berezia ALDEZ AURRETIK ADOSTUTA	25 €
dastaketa menua ALDEZ AURRETIK ADOSTUTA	35 €

ZURE URTE BUKAERAKO OSPAKIZUNEN ARRAKASTA BERMA EZAZU



www.plazaetxeberri.eus en gaitzuzu



1936. urtean estatu kolpeareen ondorioz errepresaliatuak izan ziren Urola Ferrokarrileko langileei omenaldia

Gipuzkoako Foru Aldundia, 36ko estatu kolpeareen ondorioz 1936 eta 1937 bitartean errepresaliatuak izan ziren Zumarraga-Zumaia bitarteko Urola Ferrokarrileko langile ohien edo eta senitarteko bila dabil 2016ko abenduaren 20an egingo zaien gorazarre ekitaldirako. Jarri mesedez harremanetan **943 112 290** telefono zenbakian.



Kale Berria, 46 behe. 20150 Villabona
Tf: 943 690 297 - 607 445 484
www.aburuza.com - aburuza@aburuza.com



Construcciones y Promociones EPERGAIN, S. L.

IBARRA

ARANTZAZUKO AMA 10-12
_ Bi eta hiru logelako etxebizitzak.
_ Garaje itxiak.



VILLABONA -SALVADORA-

- _ Hiru logelako etxebizitzak.
- _ Garaje itxiak.
- _ Lokalak.

ALEGIA - BEISTIN

270.000 € + BEZ

